

IVL-LEE inkesta "ERREPIDEKO GARRAIOA EUSKADIN"

2025

**INSTITUTO VASCO DE LOGISTICA Y MOVILIDAD SOSTENIBLE
MUGIKORTASUN IRAUNKORRA TA LOGISTIKAKO EUSKAL ERAKUNDETIK**



Instituto Vasco de Logística y Movilidad Sostenible
Mugikortasun Iraunkorra ta Logistikako Euskal Erakundea


© 2026 IVL-LEE
Mugikortasun
Iraunkorra ta
Logistikako Euskal
Erakundea.

Eskubide guztiak
erreserbatuta

Euskadin argitaratua

Dokumentu hau eta inkesta honetatik eratorritako edukiak, datuak, grafikoak eta emaitzak Mugikortasun Iraunkorra eta Logistikako Euskal Erakundearen jabetza intelektualak dira. Debekatuta dago dokumentua osorik edo zati batean erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea edo eraldatzea, eskubideen titularraren berariazko baimen idatzirik gabe.

AURKIBIDEA



04

IVL-LEEko
LEHENDAKARIAREN MEZUA.

05

IVL-LEErE BURUZ.

06

SEGMENTAZIOA

08

TEKNOLOGIA BERRIAK

11

DESKARBONIZAZIOA

15

FORMAKUNTZA ETA GIZA
BALIABIDEAK

ONDORIOAK ETA
ESKERRAK

19

IVL-LEEko

LEHENDAKARIAREN MEZUA



Aurkezten dugun txostenak salgaien mugimendurako eta, ondorioz, gure gizartearen deskarbonizaziorantz aurrera egiteko funtsezkoa den sektore baten argazki zehatza eskaintzen digu.

Txostenak agerian uzten duena erronka honekin konprometitutako kolektibo profesional bat dela, mugikortasun iraunkorrako baterantz igarotzeko eta IVL-LEEko lagunduta egiteko prest dagoena. Kasu askotan, gainera, sektoreak dagoeneko ekin dio bere jardueraren ingurumen-aztarna murrizteko ekintza zehatzei, eraldaketarako benetako borondatea erakutsiz.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko Sailetik arretaz jasotzen ditugu sektoreak berak identifikatzen dituen zailtasunak, elkarrekin emisiorik gabeko etorkizuna lortzeko. Oztopo horiek ezagutzea ezinbestekoa da isuririk gabeko etorkizun baterantz elkarrekin aurrera egin ahal izateko, beharrak, gaitasunak eta politika publikoak lerrokatuz.

Eskerrik asko galdetegia erantzun duzuen guztioi, eta IVL-LEEri, tresna hau gure eskura jartzeagatik, Euskadiko errepideko garraioaren eta logistikaren errealitatera zehaztasun handiagoz hurbiltzeko.

SARA BARREAL

IVL-LEEko lehendakaria
Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaria

INSTITUTO VASCO DE LOGÍSTICA Y MOVILIDAD SOSTENIBLE MUGIKORTASUN IRAUNKORRA TA LOGISTIKAKO EUSKAL ERAKUNDEA

Euskal logistika ikertu, sakondu eta bultzatzen dugu.

Inkestaren helburua Euskadiko salgaien errepideko garraioaren sektoreak, teknologia berriei, deskarbonizazioari, formakuntzari eta eskura dauden diru-laguntzei buruz duen ezagutza, erabilgarritasuna eta erabilera identifikatzea da.

IVL-LEERi BURUZ



POR IRATXE GARCIA

Mugikortasun Iraunkorra ta Logistikako Euskal Erakundeak Euskadin eta haren eremu mugakideetan garatzen du bere jarduera, eta honako helburu hauek ditu:

- Logistikaren eta honekin lotutako jarduera guztien alderdi orokorrak edo espezifikoak ikertzea.
- Funtzio eta teknika logistikoen azterketan sakontzea
- Kideen lanbide-heziketa zabaltzea
- Logistikaren ezagutza zabaltzea enpresen, ikasketen eta Administrazio Publikoko beste eremu batzuetan
- Lurraldean mugikortasun iraunkorra sustatzea

Inkesta hau, Mugikortasun Iraunkorra ta Logistikako Euskal Erakundeak errepideko garraioari laguntzeko helburua duten garatutako ekintzetan sartu da, sektorearen deskarbonizazioari buruzko Europako Itun Berdean ezarritako helburuak lortzeko.

IVL-LEEtik uste dugu beharrezkoa dela sektorearen benetako egoera eta ezagutza-maila lehen eskutik ezagutzea, modu zehatzean heldu ahal izateko.

Ildo horretan egin den funtsezko galderetako bat da, adibidez, administrazioek ahaleginak egiten dituztela eta ekintzak bideratzen dituztela prozesu horietan laguntzeko eta errazteko, baina lan hori sektoreri iristen al da?

Helburu horiek arrakastaz lortzeko, ezinbestekoa izango da digitalizazioarekin batera deskarbonizazioaren erronkari aurre egiteko gaitasun egokiak dituzten pertsonekin batera joatea.

INKESTA

Inkesta 2025eko bigarren seihilekoan egin zen, eta hiru multzo nagusitan egituratuta dago. Multzo hauek laginak hartu aurretik identifikatu ziren, egoeraren analisi baten bidez.


Azterketaren arabera, teknologia, deskarbonizazioa eta pertsonak dira Euskadiko errepide bidezko merkantzien garraioaren sektorerako hiru ardatz garrantzitsuenetakoak.

Inkesta zabaldu aurretik, hainbat administrazioek eta lurralde historikoko sektoreko elkarte eta kooperatiba garrantzitsuenek bermatu zuten inkesta.

SEGMENTAZIOA

Euskadin egoitza soziala duten eta salgaiak errepidez garraiatzen dituzten enpresei zuzenduta.

Sexua




10,6%




89,4%



Kargua



Adina (SOZIALK AUTONOMOAK)



75%


50 URTE BAIÑA
GEHIGAGO

SEGMENTAZIOA

Euskadin egoitza soziala duten eta salgaiak errepidez garraiatzen dituzten enpresei zuzenduta.


Jarduera nagusia

MULTIERAKUNTZUNA



59,6%
MDP

Enpresaren tamaina



Inkestaturen % 75ek baino gehiagok errepide bidezko salgaien garraio nazionala egiten dute.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Inkestaren multzo honetan, teknologiaren ezarpen-maila eta laguntzen eta diru-laguntzen erabilera aztertzen dira, baita jasotako oztopoak ere, sektorearen heldutasun digitalaren mailaren eta epe labur eta ertainean hobetzeko aukeren ikuspegi argia eskainiz.


Digitalizazioa, modu azkarrean eta escala globalean, salgaien errepideko garraioa eraldatzen ari da, eta Euskadi ez dago egoera horretatik kanpo. Sektoreko enpresak funtsezko une batean daude, eta, une honetan, tresna teknologikoak hartzea —kudeaketa- eta plangintza-sistema aurreratuak, konektagarritasun-soluzioak, automatizazioa eta datu-analisia— faktore estrategiko bihurtzen da eraginkortasun operatiboa eta lehiakortasuna hobetzeko.

Teknologia berriak ezartzearen kontrapartida inbertsioaren kostuan egon daiteke, batez ere enpresa txikientzat, izan ere, Euskadin salgaiak errepidez garraiatzeko enpresen gehiengoak dira, non 5 ibilgailu baino gutxiago dituzten mikroenpresak dira nagusi.




Inkestatuen % 50ek Telemetria eta TMSak dituzte ezarrita flotetan.

Teknologia hauetako zein erabiltzen dituzue zuen jardueran?




Garraio zerbitzuetan irtenbide digitalak ezartzeko dirulaguntzarik eskatu dituzu?



Esango zeniguke zein edo zeintzuk? (bai)

Laguntzak eskatu dituzten inkestatuek, batez ere, digitalizazio-programa publikoetara jo dute (kit digital/kit consulting), baita funtsezko soluzio teknologikoak ezartzea ere, hala nola takografoa, ERP edo floten kudeaketa. Baita garraio-zerbitzuetan prozesuak eta kontrol operatiboa hobetzeko ere.



Esango al zeniguke zeintzuk diren ezarri dituzuen ekintzak?

72,7%

Inkestatuen % 72,7k EZ ditu diru laguntzarik eskatu soluzio digitalak ezartzeko, eta hauek dira ez eskatzeko arrazoi nagusiak:

Enpresaren tamainaren edo baldintzen araberako mugak

- ETEentzako diru-laguntza jakin batzuk jaso ezin dituzten enpresa handiak
- Zentraletik edo egoitza korporatibotik hierarkizatutako prozesuak.
- Eman gabekoak edo jarduerarekin bateragarriak ez diren diru-laguntzak.

Ezjakintasuna eta informazio falta

- Ez dituzte laguntzak esagutzen, edo zeintzuk aplikatzen diren errepide bidezko garraioan.
- Jasotako informazio eskasa edo baldintzei buruzko argitasun gutxi.
- Programen ezjakintasun orokorra.

Tramitazioa era burokrazia

- Izapideten konplexutasuna.
- Gehiegizkotzat hartutako burokrazia.
- Administrazio-kudeaketan arintasunik eza.

Beharrik eza edo lehentasun txikia

- Beren lanerako behar ez dutela uste dute
- Dagoeneko badituzte sistemak ezarrita.
- Digitalizazioa atzeratu egin da enpresan premiazkoagoak diren beste arazo batzuegatik.
- Laster erretiroa hartu

Beste arrazoi batzuk

- Laguntza deialdi berrien zain
- Laguntzen diseinuari kritika; sektorearen errealtatera gutxi egokituta daudela uste da

DESKARBONIZAZIOA


Helburua sektorearen benetako abiapuntua zein den eta aldaketa eraginkor eta bideragarria bizkortu dezaketen palankak identifikatzea da.

LDeskarbonizazioa da Euskadiko errepideko garraio-enpresen beste erronka nagusietako bat garraio jasangarriago baterako trantsizioan; izan ere, erregulazio-presioaren, emisioak murrizteko beharraren eta bezeroen eta administrazioen igurikimene aldaketen ondorioz, irtenbide energetiko garbiagoak bilatzera bultzaten dute.

EAtal honek honako hauek aztertzen ditu: deskarbonizazioari buruz sektoreak duen pertzepzioa, deskarbonizazioa bideratutako ekintzen ezagutza eta inplementazio maila, alternatiba energetikoei buruzko joerak, flota berritzeko erritmoa, trantsizioa zailtzen duten oztopoak eta ildo horretan zuzendutako laguntzen ezagutza eta erabilera.




Deskarbonizaziora bideratutako ekintzarik egin al dituzue?




Esango al zeniguke zeintzuk diren ezarri dituzuen ekintzak?


Erantzuna *BAI* 54,3%




Esango al zeniguke zergatik? Erantzuna EZ 45,7%




Deskarbonizaziorako dirulaguntzei dagokienez, zeintzuk esagutzen dituzu?




Baten bat erabili duzu?



BAI ZEINTZUK?



EZ ESANGO AL ZENIGUKE ZERGATIK?



Zure ustez, zerk erraztuko luke deskarbonizazio prozesua?


Enpresak bat datos deskarbonizazioa beharrezko helburua dela esatean, baina oraindik zaila da horri heltzea. Gehienek adierazten dute inbertsio handiak direla galga nagusia: flotak berritzea, teknologia berriak txertatzea edo azpiegiturak egokitzea, enpresa askok ezin dute kostu hori bere gain hartu laguntza ekonomiko argi, arin eta eskuragarri gabe. Halaber, burokrasia gutxiago eta prozesu errazagoak eskatzen dituzte, ez dituzten baliabideak erabili gabe laguntza horiek eskuratu ahal izateko.

Ziurgabetasun teknologikoa da indarrez agertzen den beste elementu bat. Enpresa askok ez dakite zer ibilgailu-mota aukeratu - elektrikoa, gasa, hidrogenoa, bioerregaiak -, uste baitute alternatibak oraindik ez daudela behar bezain helduak edo ez direla egokitzen beren garraio motara. Horrez gain, kargatzeko eta hornitzeko puntu-sare zabala falta da, batez ere distantzia luzeko operazioetarako.


Gainera, zenbait erantzunek barne-eraginkortasuna hobetzeko beharra adierazten dute: ibilbideak optimizatu, prozesuak digitalizatu, gidariak prestatu eta langile guztiak sentsibilizatu aldaketaren garrantziaren inguruan. Administrazioen, enpresen eta bezeroen arteko koherentzia eta koordinazio handiagoaren beharra ere aipatzen da, baita prozesuaren ikuspegi globalagoa eta progresiboagoa ere.

Oro har, enpresek deskarbonizazioa bide posible gisa ikusten dute, baina benetako laguntza ekonomikoa, teknologia fidagarria, azpiegitura nahikoa eta laguntza praktikoa behar ditu, trantsizio bideragarri bihur dadin, eta ez karga onartezin bat.

Prest egongo zinateke aldaketa hori errazteko ekintzak sustatzen dituzten jardueren eta/edo neurrien garapenean parte hartzeko?



IVL-LEE k karbono-aztarna kalkulatzeko eta iraunkortasun-planak diseinatzeko laguntza zerbitzua eskainiko balu, zure enpresarentzat onuragarria izango litzateke lankidetzara hori?



FORMAKUNTZA ETA GIZA-BALIABIDEAK


Profil desberdinen eskasiak sektorean langileak kontratatzeko zailtasuna areagotzen du. Multzo honek langileak kontratatzeko erabiltzen diren bideen eta zailtasun-mailaren erradiografia eskaintzen du.

Euskadiko errepideko garraioaren egiturazko erronketako bat langile kualifikatuen eskuragarritasuna da oraindik ere. Profil berriak erakartzeko zailtasuna, gaitasunak eguneratzeko beharra eta eskakizun profesionalen bilakaera direla eta, talentuaren kudeaketa elementu kritikoa da sektorearen iraunkortasunarako.


Bloke honek prestakuntza-beharretan, egungo eskaintzari buruzko pertzepzioan, kontratatzeko zailtasunetan eta gaikuntzaren arloko lehenetsunetan sakontzen du. Enpresak gero eta ingurune konplexuago eta teknifikatuago baterako prestatutako plantilla bat izateko erronkari aurre egiteko moduari buruzko ikuspegi zehatza ematen du.




Zailtasunak dituzu edo izan dituzu langileak kontratatzeke orduan?




Zer zailtasun identifikatzen dituzue kontratatzeke orduan?




Zeintzuk dira zure kontratazio bide nagusiak?




Formakuntzarako dirulaguntzei dagokienez, zeintzuk ezagutzen dituzu?



Baten bat erabili duzu?



Zer programa edo zerbitzu erabili dituzue?



Zergatik ez dituzue erabiltzen dirulaguntza edo zerbitzu horiek?

Dirulaguntza horiek erabiltzen ez dituzten enpresak bat datoz esatean, kasu gehienetan, ez direla beharrezkoak beren egungo egoerarako.

Askok azaldu dute ez dutela horietara jotzeko beharrik izan, esperientzia handiko langileak dituztelako, beren jarduera duela gutxikoa delako edo beren egiturak - batzuetan, kamioi bakarrarekin - izapide gehigarriakin hastea justifikatzen ez duelako.

Askotan errepikatzen den beste arrazoi bat informazio falta da. Hainbat enpresak onartzen dute ez dakitela zer laguntza dauden, zertarako balio duten edo nola erabiltzen diren. Kasu batzuetan, ez dute begiratu ere egin ea onura ateratzen diezaien, bai denbora faltagatik, bai enpresaren barruan zuzenean kudeatzen duten gaia ez delako.

Halaber, dirulaguntzak kolektibo oso espezifikoetara mugatuta daudelako pertzepzioa agertzen da, eta horrek, bere kasuan bat ez datozenaren sentsazioa sortzen du. Horri gehitu behar zaio enpresa batzuk erretirotik gertu daudela edo negozioan oso denbora gutxi daramatela, eta, beraz, ez dutela lehentasunezko zat jotzen administrazio prozesu gehigarriak hastea.

Oro har, arrazoiek premia falta, informazio eza eta denbora falta konbinatzen dituzte, laguntza horiek beti beren profilerako edo enpresa unerako diseinatuta ez daudelako ideiarekin batera.

ONDORIOAK

Inkesta honek Euskadiko salgaien errepideko garraioaren egoeraren ikuspegia ematen du, eta sektoreak eraldaketa teknologiko, energetiko eta profesionalaren testuinguruan dituen aurrerapenak, beharrak eta erronkak identifikatzeko aukera ematen du. Emaizte askotariko enpresa sarea islatzen dute, etengabeko hobekuntzareki konprometitua, eta Europako eta autonomia-erkidegoetako politikek digitalizazioaren, jasangarritasunaren eta trebakuntzaren arloan ezarritako helburuetara egokitzearen garrantziaz jabetuta.

Arlo teknologikoan, tresna digitalen ezarpen-maila nabarmena da, batez ere telemetriaren eta kudeaketa-sistemei dagokienez, hala ere, oraindik, enpresa-tamainarekin, informazio-faltarekin eta dirulaguntza publikoak eskuratzeko administrazio-konplexutasunarekin lotutako oztopoak daude.

Deskarbonizazioari dagokionez, sektoreak aurrera egiteko prestasun argia erakusten du, flota berritzen, efizientzia operatiboan eta laguntza-teknologiaren erabilera hasita dauden ekintzekin. Hala ere, inbertsio-kostu handiak, ziurgabetasun teknologikoa eta azpiegitura-eskasia faktore mugatzaileak dira oraindik ere.

Formakuntzari eta giza baliabideei dagokienez, inkestak berresten du behargin kualifikatuak izatea egiturazko erronka nagusietako bat dela. Profil berriak erakartzeko zailtasunak, konpetentziak eguneratzeko beharrek batera, formazio eskaintza indartzearen eta dauden laguntza-programetarako sarbidea hobetzearen garrantzia azpimarratzen du.

Oro har, emaitzek agerian uzten dute Euskadiko salgaien errepideko garraioaren sektorea une erabakigarrian dagoela. Gehienek eredu jasangarriagoak, digitalagoak eta profesionalizatuagoak lortzeko borondatea dute, baina trantsizio hori eraginkorra izan dadin, etengabeko laguntza behar da, laguntza-tresnetan argitasun handiagoa, eta administrazioen, enpresen eta sektoreko eragileen arteko koordinazio sendoagoa behar da.

IVL-LEEk garraioaren lehiakortasunaren eta sektorearen erresilientziaren aldeko ekimenak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresten du.

ESKERRAK

IVL LEEk eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten salgaien errepideko garraioaren sektoreko enpresa, kooperatiba, elkarte eta erakunde guztiei. Zuen lankidetzak funtsezkoa izan da sektoreak Euskadin duen errealitatearen ikuspegi zabala, askotarikoa eta adierazgarria lortzeko.



*Instituto Vasco de Logística y Movilidad Sostenible
Mugikortasun Iraunkorra ta Logistikako Euskal Erakundea*

*Informazio gehiagorako, jarri harremanetan
Estibaliz Salazar*

*San Nikolas Plazatxoa 3 - 3^a
48005 Bilbao
Tfno.: 94.438.71.94
ivl@ivlogistica.com
www.ivlogistica.com*

Con la colaboración de:

